

Literatura DK programa, literatur zaletasuna bultzatzeko Udal Liburutegietan liburu aurkezpenak eta solasaldiak egingo dituzte

Antton Fernandez.

DK literatura programaren harira, dozena bat liburu aurkezpen eta solasaldi egingo dituzte Udal Liburutegietan urte osoan zehar, liburuak eta literatur zaletasuna bultzatzeko. Programaren baitako lehen bi ekitaldiak datorren astean egingo dituzte.

Iaz hasi zuten DK literatura ekimena, eta, antolatzaileak Donostia Kultura eta Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkartea oso gustura daude emaitzekin, ehun bat lagun bildu baitzituzten iaz ekitaldi bakoitzean. Horregatik, aurten ere egitea erabaki dute.

Martxoaren 30ean, Pio Barojaren Miserias de la guerra liburu argitaragabea aurkeztuko dute, 12:00etan, San Jeronimo kaleko Udal Liburutegian, Pio Barojaren iloba, Pio Caro Baroja, eta Migel Santxez Ostiz idazleak bertan direla.

Martxoaren 31n, Paul Austerren azken liburuaz, Brooklyngo erokeriak euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu berriaz, arituko dira Harkaitz Cano eta Juan Munilla idazleak Ernest Lluch kultur etxean, 19:30etik aurrera.